

KARMEL  
hmwe p©rtas™ la Meem IS f§5J oair® bizirik

- Historia, lafewsreaii

*KARMEL euskal aldizkariaren azken aroko 15. urtebetetzea ospatzen dugu. Ha/a ere hori, azken aroan egin duen btdea baino ez da. Guztitara 55 urteko adina du. 55 arte bizirik! Urte asko Euskal Herriaren eta euskararen aide lanean.*

*3«G@ETO@ng© Ainraairenu lAw^mn izenez jaio zen 193Lean. Gem, beste asko bezaia, gerrak lto zuen. 1949. urlean has! zen berriro Sanii Onaindiaren ardurapean, baina oraingoan liburuska legez eta (Karmengo Amaren Egutegia» izenez. Hitz-lauz eta olerkiz, musikaz eta beste jakingaiz aberats... 1957.ean, aldizkari legez ikusi zuen argia KARMEL-ek. 1960.ean^ ordea, Espanako Informazio Ministeritzak gaierazi egin zuen, KARMEL-k here orrialdeetan euskara hutsa erabilizen zueiako. Orduan, here irakurlegoa zaintzearren. eta euskaltzaletasunari gartsu eustearren, euskal liburu batzuk argitaratu ziren haren hutsunea betez.*

*1970. urtean here azken a ma hasi zuen KARMEL-ek, eta gaur arte aurrera jo du, dim aldetik larrialdi estuetan ibili arren; bidean oztopo handiak eta ugari aurkitu arren, beti euskeraren, auskaldunen eta Euskal Herriaren zerbltzuan, erdi aldeko bideari ekinez: 15 (55) urte!*

- Bere tokia<sup>^</sup> askatasun zabalean irekia

*Beneian euskal aldizkarien artean zabaltasunik bada, KARMEL-i dagokionez, bete-betean aurkitzen dugula esan behar. Horixe da, hain zuzen, beronen berezitasunetariko bat: Askatasun osasungarria!*

a. Hizkisntzaren aldetik

*idazie bakoitzaren esku uzten da eus'kalki batez ala euskara batuz baiiatzea: euskara batuz, bizkaieraz, gipuzkeraz etab., eta beti hiru era hauetako ianez hornitua agertu ohi da KARMEL. Gizon jak'ntsu eta idazieei askatasuna utzi behar zaie, oreka onean beren Sana k on ditzaten...*

b, Galere aldetik

*Besie erdi-mailako aldizkariak betetzen ez duten tokia bete nahi luke KARMEL-ek. Era guztiako gaiak erabilizean du, hain zuzen, here bidea: euskal kulturazko gaiak (literatura, kritika, historia, kontu-kontari, ian herrumiak, olerkiak etab.) gizarie-gaiak, erlijiozkoak.*

*Beste aldizkarien artean here fekua eg in eta hortixek aurrera egiten saiatuko da, inoren bideetan gurutzatu edo nahasi gate. Haren ornetan agertzen diren izenak ere, batzuk behintzat, ospetsuak eta ezagunak dim.*

- Etorkizisna: Idfoengo sustraietan erafeeErifctarik atiiherera ©gin

*KARMEL-ek here bide iuzean, edozein bizidunek bezala, gorabeherak eta aldakuntzak izan ditu.*

*Baina KARMEL sortu zenean, beste helburu batzuren artean, hau ere garrantzi handikoa izan zen: idazle gazte eta hasiberrieri here ornetan toki eg in eta luma trebetzeko aukera ematea, baina era berean idazie zah'ar eta ospetsuak aldizkarien idazteko zirikatuz. Gaur ere asmo berdintsuak ditugu.*

«Uste dugu guk»- zioen KARMEL-ek 1975. eko Gabonetako alean- «biziak ematen diola bizi denari, eta euskera ta kristautasuna biziak direnez, eta sekula-sekulotan bizia izan dezaten gure artean, KARMEL-ek bizirik iraun nai du. Bizirik... negarrez eta irribarrez. Bizirik minez eta pozez. Bizirik... pakean eta burrukan. Bizirik! Bizirik! Amak aurrera argiratu oi duan bezala, KARMEL argitaratuko dogulakoan sartuko gera urte berrian».

Bai, bizi nahi dugu, itxaropen berriz bizi.

Ez dogu konpiexurik, ez gai eta ideo/ogia aldetik, ezta hizkuntza eta historia aldetik ere.

Euskarak bizi nahi du.

KARMEL-ek bizi nahi du euskararekin.

Guk bizi nahi dugu.

Eta ahalegin horretan euskarak e/kartuko gaitu!

# BANCO DE BILBAO

100 urte balno geiago bezeraeii zerbllzuan

**ESPAINA.'KO BANKO BAKARRA**  
**ERBESTEAN ETXE-ORDEZKOAKIN**

Ofizinak: Karmen kalean, 7 - AMOREBIETA (Bizkaia)

>II'ORIAIA